

Bezero agurgarria:

Jakinarazi nahi dizugu zure kaudimen finantzarioa aztertu ondoren blokeatu egin dugula zure kreditu-txartela edo-kontua*, behin behinekoz, eta beraz, hemendik aurrera ezingo duzula eragiketa gehiagorik egin zure kreditu-txartelarekin edo -kontuarekin.

Neurri horrek ez du eraginik edo ez du aldatzen zure kreditu-txartelaren edo -kontuaren gainerako baldintzarik, aplikatu aurretik hartutako zorrari dagokionez. Gogoan izan ezazu aipatu neurriak zure gastuak eta zorpetzea ez handitzea duela helburu, uste baitugu zailtasunak izan ditzakezula zure ordainketa-betebeharrei aurre egiteko.

Edozein zalantza edo kontsultarako, gurekin beti bezala harremanetan jar zaitezke gure kanalen, webgunearen edo app-aren bidez.

P. p.



Zuzendari komertziala

* Neurri hori jasota dago txarteldun edo txartel gabeko zure kreditu-kontuaren kontratuan, eta indarrean dagoen lege-araudiaren arabera aplikatzen dugu (Ordainketa-zerbitzuei buruzko 19/2018 Errege Lege Dekretuaren 40.2 artikulua honako hau ezartzen du: «2. *Esparru-kontratuan hala adostuta denean, ordainketa-zerbitzuen hornitzaileak beretzat gorde ahal izango du ordainketa-tresna blokeatzeko eskubidea ordainketa-tresnaren segurtasunarekin erlazionatutako eta objektiboki justifikatutako arrazoiengatik, baimendu gabeko erabileraren susmoarengatik edo hori iruzurrezko moduan erabiltzeagatik, edo, kreditu-lerro batera lotuta badago, agindu-emaileak bere ordainketa betebeharrari aurre egin ezin dion arriskuaren hazkunde nabarmena gertatzen bada*»).

CaixaBank Payments & Consumer E.F.C., E.P, S.A.U., pertsona bakarreko sozietatea, egoitza soziala avenida Manoteras 20, Paris eraikina, 28050 Madril helbidean duena. IFK: A08980153. Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatuta, 36.556. liburukian, 29. folioan, M-656492 orrian, baita Espainiako Bankuko Kreditu Establezimenduen Erregistroan ere (8776. zk.).